

DONOSTIAKO GAZTEENTZAKO TALENT EGOITZEN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK. Ekonomia Bultzatzeko DSS2022 Plana

ATARIKOA

Donostia Sustapena Donostiako Udalaren garapen ekonomikoko sozietatea da eta, besteak beste, hiriko garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzeko helburua du, bereziki, kohesioko eta jasangarritasuneko irizpideei jarraikiz, hiriko eragileekiko adostasunetik eta lankidetzatik, eta nabariki berrikuntzaren aldeko apustua emanez, hiria eraldatzeko eredu gisa.

2011tik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori urtero martxan jartzeko tresna bat bereganatu dute: Ekonomia Bultzatzeko Plana.

Tresna hori dagoeneko finkatuta dago, goranzko bilakaera izan baitu eta ezarritako helburuak bete baitira; hala, tresna horri esker, hiriak toki- eta mundu-mailan izan dituen zenbait erronka sozial eta ekonomikori aurre egin ahal izan diegu azken 10 urteotan, eta hiriaren lehiakortasuna eta posizionamendua hobetu da.

Pandemiaren intzidentzia handiak markatutako 2021. urte gogorrean emaitza onak lortu ziren eta, orain, Donostia Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko beste Plan bat proposatu du 2022rako.

2022rako Plan berriak beste bide bati ekitea proposatzen du, aurrera egitea eta etorkizunari pertsonetan oinarritutako ekintzen bidez heltzea, proiektu berritzaileen garapena bultzatuz eta tokiko ekosistemako eragile nagusiekin sarean lan eginez, proiektu horien, talentuaren garapenaren eta hiriaren beraren euskarri izan daitezten.

Esparru horretan, 2021eko Planaren eragina aztertu ondoren, eta tokiko eragile sozioekonomikoekin hiriaren erronkak hitzartuta, hala tokiko mailari nola maila globalari dagokienez, gaur egungo nazioarteko egoerak markatzen dituen erronkak integratuz, Donostia Sustapenak Ekonomia Bultzatzeko 2022ko Plana proposatu du. Planak honako alderdi hauek lortzeko egiten du apustu eta lan:

- **Donostia kohesionatua**, laneko aukera berriak garatuz, arreta berezia jarrita zailtasun handienak dituzten taldeetan.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasuna hobetuko duten enpresa-proiektuak sustatuz.
- **Donostia zerbitzu-hiri gisa**, kalitatezko merkataritza-ehun berritzaile baten alde eginez.
- **Donostia zientzian eta berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoko eredu gisa.
- **Donostia hiri-eraldaketako** prozesu berritzaileen **laborategi hiri gisa**.

Bost ardatz horien bidez, Donostia Sustapenak lehiakorrago eta berritzaileago bihurtu nahi du hiria, baina baita sozialago, irekiago eta kohesionatuago ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredu bat indartzeko.

Horretarako, hiri kohesionatuaren ardatz horretatik abiatuta, Donostia Sustapenak, programa pilotu honetan, Donostiako gazteei beren garapen profesionalaren hasieran ostatua bilatzen lagundu nahi die, enpleguaren eta ekintzaitzaren arloko beste neurri batzuen osagarri gisa.

1. XEDEA

Programa pilotu honen helburua da Donostiako talentu gazteei ostatua aurkitzeko aukerak ematea, haien lanbide-ibilbidearen zati batean. Horretarako aukera izango dute ekintzaitzako proiektu berritzaile batean lanean ari diren Donostiako gazteek, bai eta, kontratatuta egonik, Donostiako enpresa berritzaile batean proiekturen bat gauzatzen ari diren gazteek.

Bi kasuetan, beren garapen profesionala Donostia Sustapeneko programa hauetakoren baten bidez gauzatzen duten 35 urtetik beherako donostiarrentzat da programa.

A) Donostiako gazteak, balio erantsi bat ematen duen ekintzaitzako eta sektore anitzeko proiektu berritzaile eta bideragarri bat dutenak, eta programa honetan onartu dituztenak:

- Ekin+ eta Ekin+ Osasuna 2021 eta 2022 programa
- Donostia Sustapenaren beste ekintzaitza-programa berritzaile batzuk, edozein jarduera-sektoreekin lotuak.

B) Berrikuntzako proiektuak eta/edo ikerkuntzakoak egiten dituzten tokiko erakundeek kontratatutako Donostiako gazteak, haien kontratazioak Donostia Sustapenaren tokiko talentua garatzeko programa hauen esparruan egin badira:

- Emakume Ikerlariak 2022 programa
- SSConnecting Talent 2022 programa
- Talentu Berritzailea 2022 programa
- Bertako Talentua Itzultzea 2022 programa

Hala, profesionalki gure hirian garatzen ari diren gazte donostiarrei ostatua lortzeko laguntza eman nahi zaie gutxienez 6 hilabetez eta, gehienez ere, 2 urtez.

Programa pilotu honetan, Donostia Sustapenak 7 plaza lagako ditu Talent House eraikinean (Baenako Dukearen Pasealekua, 42. 20009, Aiete auzoa), 2022ko urriaren 3tik aurrera.

Donostia Sustapenak eskubide osoa izango du apartamentu-kopurua, kokapena eta programaren baldintzak aldatzeko, edozein arrazoigatik egokitzat jotzen badu.

2. PARTE-HARTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Programan parte hartu nahi dutenek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1) Pertsona fisikoak izatea.
- 2) Eskabidea egiteko unean, 35 urte baino gutxiago izatea.
- 3) Donostiarekin lotura izatea: lotura hiru aukera hauetako bat da:
 - Donostian jaioa izatea
 - Donostian gutxienez azken 15 urteetan erroldatuta egotea eskaera egiten den egunean
 - Donostian kokatutako fakultateren batean edo unibertsitate-eskolaren batean titulazio ofizial bat lortu izana, eta azken 10 urteetan, gutxienez, Donostian erroldatuta egotea.
- 4) Parte hartzeko eskabidea berariaz egitea, motibazio-gutun baten bidez.
- 5) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebehar guztiak egunean izatea eta zorrik ez izatea Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin.

Horrez gain, baldintza hauek bete beharko dituzte:

A) Balio erantsi bat ematen duen ekintzailtzako eta sektore anitzeko proiektu berritzaile eta bideragarri bat duten Donostiako gazteen artean, baldintza hauek betetzen dituztenek har dezaketen parte:

- Ekin+ eta Ekin+ osasuna 2021 eta 2022 programaren deialdian onartuak izatea.
- Donostia Sustapenaren beste ekintzailtza-programa berritzaile batzuetan onartuak izatea.

Programan parte hartzeko lehentasuna izango dute hileko diru-sarrerarik ez dutenek edo hilean 1.000 eurotik behera irabazten dutenek. Hori kalkulatzeko, programa pilotu honetako apartamentu bakoitzeko bizikide guztien diru-sarrerak hartuko dira kontuan. Hori kalkulatzeko, azken 3 hilabeteetako diru-sarrerak hartuko dira kontuan, eskabidea egin denetik kontatzen hasita.

B) Berrikuntzako proiektuak eta/edo ikerkuntzakoak egiten dituzten tokiko erakundeek Donostia Sustapenaren tokiko talentua garatzeko programen esparruan kontratatutako Donostiako gazteen artean, baldintza hauek betetzen dituztenek har dezaketen parte:

- Sustapenaren deialdi hauen bidez kontratatu dituztenak:
 - Emakume Ikerlariak 2022 programa
 - SSConnecting Talent 2022 programa
 - Talentu Berritzailea 2022 programa

- Bertako Talentua Itzultzea 2022 programa

Lehentasuna izango dute urteko soldata gordina kopuru hauetatik beherakoa dutenek:

- Emakume Ikerlariak 2022 programaren kasuan: 19.000 €
- SSConnecting Talent 2022 programaren kasuan: 19.000 €
- Talentu Berritzailea 2022 programaren kasuan: 19.000 €
- Bertako Talentua Itzultzea 2022 programaren kasuan: 22.000 €

Programa honetan sartzeko lehentasuna izango dute beren kontratuaren hasiera 2022ko irailaren 1aren ondoren duten pertsonak.

Donostia Sustapenak beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango du oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

3. EZAUGARRIAK ETA FUNTZIONAMENDUA

Programa pilotu honek Talent House eraikinean ostatu hartzeko aukera ematen du, 2022ko urriaren 3tik aurrera, ezaugarri hauen arabera:

A) Balio erantsi bat ematen duen ekintzailtzako eta sektore anitzeko proiektu berritzaile eta bideragarri bat duten Donostiako gazteen kasuan:

- Etxebizitza bat erabiltzeko aukera Talent House eraikinean, Donostia Sustapenak premia- eta erabilgarritasun-irizpideei jarraikiz proposatuko dion apartamentu motan.
- Gutxienez urtebetez egotea eta, gehienez ere bi urtez, Ekin+ eta Ekin+Osasuna programaren edo dagokion programaren hasieran zehaztutako mugarren betetze-mailaren arabera.
- Alokairuaren prezioaren % 60raino ordainduko zaio lehen urtean, eta % 40raino bigarren urtean.

Programa pilotuko parte-hartzaileek uneren batean Ekin+ eta Ekin+Osasuna programan edo dagokion programan zehaztutako helburuak betetzen ez badituzte, Donostia Sustapenak programa pilotu honetako partaidetza eten dezake eta berehala deuseztatu (jakinarazpen frogagarri baten bidez) Talent Housen alokairu-kontratua.

Ekin+ eta Ekin+Osasuna programa edo dagokion programa amaitu ondoren Talent Houseko ostatua luzatu nahi duten ekintzaileek proiektuaren aurrerapena eta emaitzak aurkeztu beharko dituzte hileroko edo Donostia Sustapenak eskatzen duenean. Aurrerapen hori ez bada aurkezten edo proiektuak berak aurrera egiten ez badu, Donostia Sustapenak Talent Houseko egonaldia eteteko edo ez luzatzeko erabakia har dezake (jakinarazpen frogagarri baten bidez), eta Talent Housekiko kontratua berehala deuseztatu.

Hauek dira onuradunen **betebeharrak**:

- Alokairu-kontratu bat sinatzea Donostia Sustapenarekin
- Fidantza banku-transferentzia bidez ordaintzea, eskatutako egonaldiaren iraupenaren arabera dagokion moduan.
- Donostiako Sustapenak ordaindu ez duen hileko alokairuaren zatia banku-helbideratzearen bidez ordaintzea.
- Esleitutako apartamentuaren kontsumo-gastuak banku-helbideratzearen bidez ordaintzea.
- Aparteko garbiketa behar izanez gero, horren gastuak banku-helbideratzearen bidez ordaintzea, egonaldia amaitzean.

Aurreko betebeharretako edozein betetzen ez bada, Donostia Sustapenak errentamendu-kontratua berehala suntsiarazteko eskubidea izango du, bai eta ez-betetze horren ondorioz sor daitezkeen kalte-galerak erreklamatzeko ere.

Halako onuradunei esleitutako plaza-kopurua: **3 plaza**.

B) Berrikuntzako proiektuak eta/edo ikerkuntzakoak egiten dituzten tokiko erakundeek Donostia Sustapenaren tokiko talentua garatzeko programen esparruan kontratatutako Donostiako gazteen kasuan:

- Etxebizitza bat erabiltzeko aukera Talent House eraikinean.
- Gutxienez sei hilabete eta gehienez bi urte, hasieran kontratatu duen erakundearekiko lotura izaten jarraitzen badu.
- Alokairuaren prezioaren % 40raino ordainduko zaio lehen urtean, eta % 30eraino bigarren urtean.

Programa honen onuradunari lan-kontratua egin dion erakundeak lan-harreman hori baliozkotu beharko du 10 egun balioduneko epean, eskabidea egin denetik kontaktzen hasita. Donostia Sustapenak finantzatzutako hasierako kontratuak baino gehiago irauten duen egonaldia eskatzen bada, edo lan-kontratua amaitu ondoren ostatuaren luzapena eskatzen bada, lan-kontratua egin duen erakundeak berriro baliozkotu beharko du kontratu-harremana mantentzen dela, Talent Housen alokairu-kontratua amaitu baino lehen. Bestela, ezin izango da programa honetara sartu, ezta Talent Houseko ostatua mantendu edo luzatu ere.

Programa honen onuradunak bera kontratatu duen erakundearekin duen kontratu-harremana uzten badu, Donostia Sustapenak programa pilotu horretako partaidetza eten ahal izango du, eta alokairu-kontratua berehala deuseztatu (jakinarazpen frogagarri bidez).

Hauek dira onuradunen **betebeharrak**:

- Alokairu-kontratu bat sinatzea Donostia Sustapenarekin.

- Fidantza banku-transferentzia bidez ordaintzea, eskatutako egonaldiaren iraupenaren arabera dagokion moduan.
- Donostiako Sustapenak ordaindu ez duen hileko alokairuaren zatia banku-helbideratzearen bidez ordaintzea.
- Esleitutako apartamentuaren kontsumo-gastuak banku-helbideratzearen bidez ordaintzea.
- Aparteko garbiketa behar izanez gero, horren gastuak banku-helbideratzearen bidez ordaintzea, egonaldia amaitzean.

Aurreko betebeharrak edozein betetzen ez bada, Donostia Sustapenak errentamendu-kontratua berehala suntsiarazteko eskubidea izango du, bai eta ez-betetze horren ondorioz sor daitezkeen kalte-galerak erreklamatzeko ere.

Halako onuradunei esleitutako plaza-kopurua: **4 plaza**

Onuradun mota bakoitzerako plazak betetzen ez badira, Donostia Sustapenak beste onuradun talde baterako erabili ahal izango ditu plaza horiek.

Bi kasuetan (A eta B), onuradunaren hasierako baldintzak aldatzen badira, onuradunak programa honetan duen partaidetza eten edo aldatu ahal izango du Donostia Sustapenak.

Bi kasuetan (A eta B), baldin eta onuradunak artikulu honetan adierazitako betebeharrak betetzen ez baditu, Donostia Sustapenak onuradunaren partaidetza eten edo aldatu ahal izango du, eta kalte-galerak erreklamatu ahal izango dizkio betebeharrak bete ez dituen onuradunari.

Ostatuaren ezaugarriak eta baldintzak l.eranskinean aurki daitezke.

4. PROGRAMA HONETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK FORMALIZATZEA

Oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta **programa honetara bideratutako baliabideak agortzen direnean amaituko da** (hala bada, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da).

Nolanahi ere, hau da programa pilotu honetan parte hartzeko eskabidea egiteko epea:

- Programa abiarazi den unean sartzeko betekizunak betetzen dituztenentzat: 3 hilabete gehienez ere, programa argitaratu denetik.
- Programa argitaratuta dagoenerako sartzeko betekizunak beteko dituztenentzat: 2 hilabete gehienez ere, sartzeko betekizunak bete direnetik.

Programa honetara bideratutako baliabideak agortu ondoren, apartamentu-kopurua handitzen bada, eta Donostia Sustapenak hala irizten badio, eskaera egiteko epea luzatu ahal izango du oinarri hauek aldatuz (kasu horretan, dagokion kanaletan argitaratuko da).

Eskabideak telematikoki soilik aurkeztu ahalko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bitartez (www.fomentosansebastian.eus).

Salbuespen gisa, eta behar bezala justifikatuta dagoenean, eskabidea Donostia Sustapenaren ataritik egitea ezinezkoa bada, eskabidea egiteko ordezkoko bide bat zabalduko da, Sustapenak berariazko baimena ematen badu, betiere.

Eranskinak osorik bete behar dira eta orrialde guztiek behar bezala sinatuta egon beharko dute. Sinatu beharreko dokumentazio erantsia digitalki sinatu beharko da.

Edozein informazio jasotzeko edo kontsulta egiteko, 943 48 28 00 telefonora deitu edo fomentoss@donostia.eus helbidera idatzi, gaian honako hau jarrita: «**2022 ko Donostiako gazteentzako Talent egoitzen programa**»

Donostia Sustapenaren webgunean adierazten da publikoari arreta emateko ordutegia.

Donostia Sustapenak eskabidea aurkeztu aurreko arreta-zerbitzu bat ematen du, sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Zerbitzu hori posta elektronikoz eskatu beharko da, aipatutako helbidean.

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

Administrazio-agiriak:

1. Eskabidearen eranskina
2. Programa honetan plaza eskatzeko motibazio-gutuna.
3. Eskatzailearen NANaren kopia.
4. Donostiarekiko lotura egiaztatzen duen agiria.
5. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen frogagiria.

Onuradunaren erantzukizuna izango da egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentuak egiazkoak izatea.

Interesdunek 2018az geroztik Donostia Sustapenaren laguntza-programaren batean parte hartzeko halako dokumenturen bat aurkeztu badute, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatutako dokumentazioa berriz aurkeztea, oraindik indarrean badago eta datuak aldatu ez badira.

Donostia Sustapenak zuzenean jasoko ditu zerga-betebeharrak betetzeari buruzko egiaztagiria, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga-bilketa), bai eta Gipuzkoako Foru Ogasunak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruz egindako historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak).

Eskabidea egitean Udal Zerga-bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten eskatzaileek betebeharrak hori egunean dutela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio uko Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari, eta aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Dirulaguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko agiriak.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, dirulaguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzeko.

Onuradunaren erantzukizuna izango da egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentuak egiazkoak izatea, eta bere gain hartuko ditu dagozkion erantzukizunak, agiri horiek iruzurrezkoak, faltsuak, gezurrezkoak eta abar badira.

5. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Baldin eta, dokumentazio guztia aztertuta, egiaztatzen bada eskabide hori ez dagoela osorik beteta, edo horrekin batera ez bada dagozkion dokumentazioa aurkeztu, 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio eskatzaileari eta jakinaraziko zaio hala egiten ez badu eskaera hori baztertuko dela, beste izapiderik gabe, eta, ondorioz, ebazpen hori emango dela.

Donostia Sustapenak argibideak eskatu ahal izango ditu eskatzaileak aurkeztutako edozein dokumentu eta/edo informaziori buruz.

Zuzentzeko eskatutako dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da.

6. ESKABIDEAK BALORATU ETA FORMALIZATZEA

Eskabideak sarrera-erregistroko agindu bidez ebaluatu eta ebatziko dira, programa honetara bideratutako baliabideak agortu arte.

Aurkeztutako eskabide guztiak honela baloratuko dira:

1. Onuradun bakoitzak programa honetan parte hartzeko betekizunak betetzen dituela baloratzea.
2. Motibazio-gutuna baloratzea. Eskabideak balorazio positiboa jasoko du, baldin eta adierazten bada programa honetako partaidetza lagungarria izan daitekeela onuradunek, programa amaitzen dutenean, beste etxebizitza batean horrekin jarraitzeko aukera izan dezaten.
3. Eskatutako ostatu-egonaldia hasiera eta iraupena. Lehentasuna izango dute programaren hasiera 2022ko urriaren 3tik gertuen kokatzen duten eskaerei.
4. Eskabideak eta plazak genero-parekotasuneko irizpideen arabera esleituko dira, programa honetan parte hartzeko baldintzak betetzen badira.

Donostia Sustapenak eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango du informazio gehiago behar izanez gero edo pertsona hori ezagutu nahi izanez gero.

Donostia Sustapenak hilabeteko epea izango du eskatutako laguntzari buruzko ebazpena emateko, eskabidea erregistratzen den egunetik kontatzen hasita. Epe horren barruan ez dira sartuko administrazio-agiriak zuzentzeko emandako epeak. Programa honetan parte hartzeko aukera emateari buruzko ebazpena adierazitako epearen barruan ez egiteak ez du esan nahi laguntza eman denik.

Eskaera ebatzi eta balorazio-fasea gainditu ondoren, Talent Houseko erreserba- eta ostatu-prozesuari ekingo zaio: kontratuaren hasiera-data itxiko da, fidantza ordainduko da, kontratua sinatuko da, eta abar. Talent Housen, gehienez ere, partaidetza eman denetik hilabetera sartu beharko da, Donostia Sustapenak, arrazoi justifikatuak direla medio, berariaz eta idatziz beste data bat baimentzen badu izan ezik.

Partaidetza Donostia Sustapenak berariaz egindako ebazpen bidez eman edo ukatuko da.

Ebazpenak posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, Eskabidearen eranskinean adierazitako «Jakinarazpenetarako Helbide Elektronikora»; halaber, web-aplikazioan ikusi ahal dira, espedientearen barruan, eta onuradunen zerrendak argitaratuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamenduak, 2013ko abenduaren 17koak, bere 115. artikuluko 2. apartatuan jasotako zerrenda publikoan.

Eskatzailea ez badago ados emandako ebazpenarekin, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena eman den egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko du, eta hark izapidetzeko egin beharreko prozeduren berri emango dio. Donostia Sustapenak adierazitakoa beteko da eta, hala badagokio, bi alderdiak Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira.

Aurrekoa gorabehera, Donostia Sustapenak eskubidea izango du eskatzaileari beharrezkotzat jotzen duen beste edozein informazio edo dokumentazio eskatzeko, emandako datuak egiazkoak edo zehatzak direla egiaztatzeko.

Agiriak aurkezteko epeak betetzen ez badira, eskabidea bertan behera geratu dela ulertuko da, Donostia Sustapenak, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, berariaz eta interesdunak hala eskatuta, aurkezteko epea ezohiko moduan luzatzea baimentzen badu izan ezik.

7. ONURADUNEN BETEBEHAR OROKORRAK

Programa honen onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak onartuko dituzte, eta, ondorio hauetarako, berariaz adierazten da artikulua hori aplikatzekoa dela. Bestiak

beste, betebeharrak hauei egiten zaie erreferentzia (adibide gisa aipatzen dira, horietara mugatu gabe):

- a) Oinarri hauen 2. eta 3. artikuluetan adierazitako betekizun guztiak betetzea.
- b) Talent House eraikineko araudia betetzea.
- c) Programa honetako partaidetza eman dela frogatzeko agiriak gordetzea, egiaztatzeko nahiz ikuskatzeko jarduketak egin daitezkeen bitartean eta, nolana ere, aplikatzeko den araudia ezarritako epean.
- d) Programa honetako partaidetza onartzeko garaian kontuan hartutako edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea Donostia Sustapenari.
- e) Donostia Sustapenari bere eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia ematea, programa honetako partaidetzari dagokionez.
- f) Helburu bererako lortu diren beste dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Donostia Sustapenari.
- g) Donostia Sustapenak jarraipena egiteko antolatutako bilera guztietara joatea.
- h) Donostia Sustapenak jaso den programa honen partaidetzarekin lotuta antolatzen dituen jardunaldietan parte hartzea, halakorik antolatzen bada (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, eta abar).
- i) Programa honetan parte hartzeko eskabidean aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea Donostia Sustapenari.
- j) Beharrezkoa bada, Donostia Sustapenari finantza-kontrola eta ikuskaritza egiteko jardueretan laguntzea, eta eskatzen dituen informazio eta agiri guztiak jartzea haren eskura.

8. PARTAIDETZAKO AKORDIOA DEUSEZTATZEA

Partaidetza deuseztatzeko arrazoi izango dira, besteak beste:

A) Balio erantsi bat ematen duen ekintzailtzako eta sektore anitzeko proiektu berritzaile eta bideragarri bat sortu duten Donostiako gazteen kasuan:

- Ekin+ eta Ekin+ Osasuna 2021 edo 2022 programan edo dagokion programan zehaztutako mugarrak ez betetzea.
- Ekin+ eta Ekin+ Osasuna 2021 edo 2022 programa edo dagokion programa uztea.
- Talent Housen alokairu-kontratuaren berezko betebeharrak ez betetzea.

B) Berrikuntzako proiektuak eta/edo ikerkuntzakoak egiten dituzten tokiko erakundeek Donostia Sustapenaren tokiko talentua garatzeko programen esparruan kontratatutako tokiko gazteen kasuan:

- Gaztea kontratatu duen enpresarekiko lan-harremana etetea.
- Lan-kontratua ez luzatzea, Sustapenaren programak diruz lagundutako aldiaz harago.
- Talent Housen alokairu-kontratuaren berezko betebeharrak ez betetzea.

Kasu horietan, Donostia Sustapenak programa horretan parte hartzea ebatzi ahal izango du, eta horrek ez du kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik sortuko aurreko inguruabarretako batean erortzen den onuradunaren alde.

Era berean, eskatzaileak oinarri hauetako betebeharrak edozein betetzen ez badu, Donostia Sustapenak errentamendu-kontratua berehala suntsiarazteko eskubidea izango du, bai eta ez-betetze horren ondorioz sor daitezkeen kalte-galerak erreklamatzeko ere.

9. BORONDATEZKO BAJA PROGRAMAN

Programa honen onuradunek edozein unetan eskatu ahal izango dute bajaran emateko, baina hilabete lehenago jakinarazi beharko dute Donostia Sustapenak esleitutako apartamentua utziko dutela, azken hilabeteko alokairuan fidantza ez erabiltzeko.

Borondatezko baja eskatzen denetik aurrera, Talent Houseko irteera-data finkatuko da, apartamentuaren baldintzak berrikusiko dira eta, beharrezkoa izanez gero, garbiketa egingo da. Hori guztia egin ondoren, eta adostasuna badago, fidantza itzuliko da, alokairu-kontratuan adierazitako baldintzen arabera.

Programa honen borondatezko baja formalizatzeko, mezu elektronikoko bat bidali beharko da Sustapena_TalentHouse@donostia.eus helbidera, eta irteera-data eta borondatezko baja egiteko arrazoiak adieraziko dira.

10. DATUEN BABESA

Datuen babesari buruz indarrean den araudian ezarritakoarekin bat etorritik, oinarri hauetan erregulatutako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie fitxategi batean sartuko direla dagokion eskabidearen bitartez eman dituzten datu pertsonalak, baita laguntzak onartu ondoren horien izapidean eta/edo kudeaketan aurkeztutako beste edozein dokumentazio ere, Donostiako Udalak tratatu ditzan (tratamenduaren arduradun gisa jardungo du) eta Donostia Sustapenak kudea ditzan (tratamenduaren eragile gisa jardungo du). Tratamenduaren helburua aipatutako laguntzen eskaera kudeatzea eta izapidetzea izango da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria 2016/679 (EB) Erregelamendua da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, pertsonen datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez (DBEO) eta, zehazki, 6.1.e) artikuluan ezarritakoa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren onerako edo tratamenduaren arduradunari esleitu zaizkion botere publikoak erabiltzean egindako misio bat betetzeko. (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriena; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra).

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide-orrietan hala adierazten denean, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa ematea, eta datu horiek ematen ez badira edo datu okerrak ematen badira ezinezkoa izango da eskabidea kudeatzea.

Datu horiek zertarako bildu ziren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, baita helburu horren eta datuen tratamenduaren ondorioz erator litezkeen erantzukizunak zehazteko ere.

Beharrezkoa denean, eta laguntzen emakida kudeatzeko soilik, estatuko eta estatuz gaindiko beste erakunde batzuei laga ahal izango zaizkie oinarri hauetan erregulatutako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak, erakunde horiek laguntzen finantzakide badira eta/edo Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzen badira laguntza horiek kudeatzeko.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emanez gero onuradunaren identifikazio-datuak komunikatu edo lagako direla, argitaratu egingo baitira, emandako zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web orrian eta, laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean edo, zenbatekoa edozein dela ere, galdagarria denean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Ukitutako pertsonak datuetara sartzeko eta datuak zuzendu nahiz ezabatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, baita datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubideak ere, bidezkoa denean. Horretarako, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzura jo dezake (Ijentea 1, 20003 Donostia).

Eskubideak erabiltzean ez badute arreta egokia jaso, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkez dezakete. Helbidea: Tomas Zumarraga dohatsuaren kalea, 71 – 3. solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz. Dena dela, lehen instantzian, Donostiako datuak babesteko ordezkariarengana jo dezake erreklamazioa jartzeko: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, jakinarazten da ezen, dagokion eskabidea aurkeztuz, eskatzaileak berariaz baimentzen dituela aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondoriozko datu-komunikazioak edo -lagapenak.

11. LEGEDIA, ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEIA ETA OINARRIEN BALIOZKOTASUNA ETA APLIKAZIOA

Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskabidea aurkeztuta, interesdunek guztiz onartzen dituzte oinarri hauek.

Erantzukizunetik salbuestea.

Diruz laguntzen den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz edo jardueraren beraren ondorioz kalte pertsonal eta/edo materialik eragiten bada, onuraduna izango da horien erantzule bakarra; beraz, Donostia Sustapenak ez du izango kontzeptu horien gaineko erantzukizunik inola ere.

Araubide juridikoa

Emandako laguntzetan, oinarri hauetan jasotako arauak eta, osagarri gisa, DLOan eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, DLOaren Erregelamendua onartzen duenak –aurrerantzean, DLOE– onetsi zuten) jasotako arauak aplikatuko dira, baina DLOan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatutako informazio-arlokoiei dagokienez soilik; hori guztia, 3.2 artikuluko bigarren paragrafoa betez (hor zehazten da aplikazio hori).

Bestela, oinarri hauetan berariaz aipatzen direnean soilik aplikatuko dira aipatutako DLO eta DLOE arauak.

12. ESKUMENA ETA AUZIAK EBAZTEA

Eztabaida, gatazka edo desadostasunen bat sortzen bada, gatazkek ebazteko judizioz kanpoko bidea agortuta eta dagozkion errekursoak eta erreklamazioak aurrez aurkeztuta, bi alderdiek Donostiako Epaitegi eta Auzitegiek erabakitakoa bete beharko dute.

Donostia, 2022ko Uztailaren 12a

Iñigo Olaizola
Donostia Sustapena SAREN zuzendari gerentea

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: TALENT HOUSE-KO ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Esteka honetan, eraikinaren xehetasunak ikus daitezke, baita apartamentuen irudiak ere: <http://www.donostiainn.eus/eu/talent-house/ostatu-hartzeko-zerbitzuak/alokatzearen-kontratua>

Hauek dira gutxi gorabeherako kostuak, eta kontratua sinatzen denean zehaztuko dira:

Hilabeteko alokairuaren kostua (BEZ barne), gutxi gorabehera: 635€/hilabete

Fidantzaren kostua. 2 hilabete, BEZ barne, gutxi gorabehera: 1.265€

Kontsumo-gastuak etxebizitza bakoitzeko: erabileraren arabera.